




Gizarte Segurantzako afiliazioak gora egin zuen

Afiliazioa Gizarte Segurantzaz
Urte bakoitzeko urtarila. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Aurtengo lehen hilabetea, **Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,0 igo zen Euskadin, aurreko urteko aldi beraren aldean.** Urtarrilean 1.024.000 afiliazio baino gehiago izan ziren, serie historiko osoko erregistrorik onena izanik hilabete horretarako. Gizonen eta emakumeen afiliazioa %1,0 eta %0,9 hazi ziren, hurrenez hurren

Langabezia erregistratuak behera egin zuen berriro

Erregistratutako langabezia
Urte bakoitzeko urtarila. Milakoak



Iturria: Lanbide.


Urtarrilean, **Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia %1,1 murriztu zen aurreko urteko hil beraren aldean.** Hau da, 108.000 pertsona inguru zeuden Lanbiden erregistratuta, 2008tik urtaril baterako mailarik baxuena, eta 2025eko urtarrilean baino 1.221 pertsona gutxiago. Abenduarekin alderatuz, langabetuak 706 gehiago ziren urtarileko ohiko urtarokotasuna dela eta.



Industriaren ekoizpena ez zen hazi abenduan

Industria produkzioaren indizea (IPI)

Urte bakoitzeko abendua




Abenduan, Euskadiko industriaren ekoizpena ez aurrera ez atzera geratu zen (%0,0) aurreko urteko hil beraren aldean. Bilakaera hori ondasun mota guztietan izandako beherakaden ondorio izan zen, ekipo-ondasunetan izan ezik, horiek %3,6 egin baitzuten gora. 2025 osoko, industria jarduera %0,6 murriztu zen.

Iturria: Eustat.

Txikizkako merkataritza %3,7 hazi zen Euskadin

Txikizkako merkataritza guztira Urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoa. Indizea



Eustaten arabera, **2024ko laugarren hiruhilekoan Euskadiko txikizkako merkataritzako salmentak %3,7 igo ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean.** Serie historiko osoan lortutako baliorik handiena da. Igoera elikagaien salmentan (%1,9) eta gainerako produktuetan (%3,0) oinarritu zen. Langile okupatuak %1,0 hazi zen 2024ko laugarren hiruhilekoaren aldean.

Iturria: Eustat.